



Lan deialdia: Nafarroako Bertsozale Elkarteko irakaslea

2021/2022 ikasturterako **bertsolaritza irakasle** bat behar du Nafarroako Bertsozale Elkartek, Sakanako ikastetxeetan eta Bertso Eskoletan aritzeko. Curriculum Vitaeak eta motibazio gutunak aurkezteko epea: 2021eko ekainaren 10a, osteguna (barne).

Eskaintzen da:

- Kontratu mota eta lanaldia: obrako kontratua, lanaldi erdiz. Ordutegi moldagarria.
- Kontratuaren iraupena: 2021/2022 ikasturtea, 2021eko irailaren 1etik 2022ko ekainaren 30era (ikasturte bukaeran baloratuko da beste ikasturte baterako luzatzeko aukera).
- Lan lekua: Sakanako Ikastetxe eta Bertso Eskoletan (Irurtzungoak salbu).

Eginkizun nagusiak:

Nafarroako Bertsozale Elkartearen hezkuntza proiektua Sakanan garatzeko irakasle baten bila ari gara, lanaldi erdiz. Hauek dira langilearen funtzio nagusiak:

- Hezkuntza Arautuko *Bertsolaritza irakaskuntzan* programa ematea, Sakanako 10 ikastetxetan (14 talde). Talde bakoitzean, oro har, 15 asteko programa aurreikusten da.
- Sakanako Bertso Eskoletan irakasle aritzea (asteko arratsalde batzuetan). Une honetan, 4 Bertso Eskola talde aurreikusten dira (bakoitzarekin 30 saio inguru, ikasturte osoan), baina talde berriak sortzekotan hark ere hartuko litzuke, lanaldia proportzioan handituz.
- Sakanako bertsolaritzaren hezkuntza proiektuaren eragiletza lana: herriko eragileekin interlokuzioa, matrikulazio kanpaina hedatu, aisialdi jarduerak antolatu, ikuspegi oso eta estrategikoa txertatu...

Eskatzen da:

- Unibertsitateko lizentziatura, diplomatura edo gradu titulua izatea.
- Bertsogintzan eskarmentua izatea; bertsolaritza eta euskal kultura ongi ezagutzea.
- Euskara maila altua izatea (EGA titulua edo balioduna).
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.

Baloratuko da:

- Sakanako eskualdearen ezagutza.
- Haur eta gazteekin didaktika alorrean aritu izana.
- Bertsozale Elkartearen proiektuaren eta jardunaren ezagutza.
- Kudeaketarako eta bulego lanetarako gaitasuna.
- Izaera planifikatua, ordenatua, ekintzailea eta dinamikoa izatea.

Interesa duenak **Curriculum Vitae-a** eta **motibazio gutunak** bidali behar ditu Nafarroako Bertsozale Elkartera (nafarroa@bertsozale.eus), **2021eko ekainaren 10era arteko epean (barne)**. Informazio gehiago behar izanez gero, idatzi mezu bat helbide horretara edota deitu: (+34) 948 14 37 47.